

BALOREZKO PROPOSAMENA

Eguneroko bizitzatik ihes egiteko esperientzia emozionante nahiz eta dibertigarriak eskainiko dituen zerbitzua eskainiko dugu aplikazio baten bidez. Esperientzia mota ezberdinak sortuko ditugu eta bezeroak aukera izango du hauen artean aukeraketa bat egiteko. Bezeroak bi aukera ezberdin izango ditu; batetik biziko duen esperientziaren berri izatea eta bestetik, ezjakinean esperientzia bizitzea. Azken honekin, bezeroak ez du jakingo zertan datzan haren esperientziak, soilik zer sentimendu sor diezaiokeen. Izan ere, kontsumitzailearen erabakia izango da esperientzia moten artean aukeraketa egitea.

Izan ere, askotan pertsona asko zer egin ez dakitela geratzen dira asteburua iristean eta gure enpresak arazo hori konpontzen lagunduko du.

Horrelako enpresa asko ez daudenez, iruditzen zaigu jendeak probatu egin nahiko lukeela gure zerbitzua. Bere gustukoa lizango balitz, gure zerbitzuak kontsumitzen jarraituko du.

Lehiakideengandik bereiz gaitezke honakoen bitartez:

- **Berritasuna:** Ez dira horrelako enpresa asko ikusten, hau da, lehiakortasun txikia dago sektore honetan.
- **Pertsonalizazioa:** Aplikazioan, premium aukera izango du. Eskaintza hori erabili al izateko, kuota bat ordaindu beharko du hilero aplikazioa erabiltzearren eta kuota hori erabiltzaileak duen erabilpenaren arabera izango da. Premium diren kontsumitzaileek ere eskaintza bereziak izango dituzte.
- **Prezioa:** Bezeroak bere egoera ekonomikoaren arabera prezioa aukeratzeko aukera izango du. Bestalde, gure zerbitzua aplikazio baten bitartez eskuragarria izango denez, *“premium”* izanda deskontu ezberdinak izateko aukera izango dute.
- **Eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna:** Aplikazio bat izango denez, oso erraza izango da gure zerbitzua lortzea. Soilik deskarga baten ostean erabil daitekeelako.